

*Eibartar bati.*—Adiskide, arritzekoa da Eibartar jator batzentsat, baño EGAN'en oker bota dezu tiroa, alegia kale atera zaizula. Erlijioso usaieko aldizkariak bakarrik ditugula zuk uste, baño badira Euskal-errian beste zenbait, zuk ezagutzen ez dituzunak ino-la ere: OLERTI, EGAN, EUSKERA, EUZKO GOGOA, GOIZ ARGÍ, UMEEN DEYA, LUZAIDE, ta abar: mugaz beste aldetik berriz, GAZTE, HERRIA, GURE HERRIA, ta abar: erlijio kutsurik ez dutenak denak, izenean beñepein. Ta zuk diozunez, orain, AUSPOA omen datorkigu atzetik. Baño, adiskide, gauza negargarri

bat adierazi bearrean nauzu. Alegia, auspoa ondo datorrela sukaldean, baño aurretik egurra nai litzakeala sua egiteko. Ta orixe gertatzen zaie gure Tolosako euskaldun jatorrai ere. AUSPOA atera nai luteke len-bait-len, baño ortarako aurretik egurra bear, dirua noski. Seireun sozio bear omen dituzte ta or dabilza Euskal-erri osoan osatu eziniik. Lareuntsu bat omen dituzte jasoak. Aspaldiko ajea degu auxe euskaldunok : kultura-gaietan idorra dala gure erria. Auzorik kaxkarrenetan ditugu PEÑA edo Klub, diralako oyek : *Peña Bahamotnes*, *Peña Loroño* ta olakoak. ¿Noiz asiko ote gera euskaldunak, *Peña Orixe*, *Peña Lizardi* ta ortarakoak sortzen gure errietan? Gauza zerbaít “ekilibratzeko”, beenik, nai litzake gure errietan olakotxe zertxo-bait ere.

EUSKALTZALE BAT.